

Talentua erakartzea

Xedea (1.oinarria)	<ul style="list-style-type: none"> – Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo bizi diren eta lan egiten duten kualifikazio eta esperientzia profesional handiko profesionalak Bizkaia erakarri, sorterriratu, lotu eta atxikitzea erraztea eta horretarako laguntza ematea, beren karrera profesionala Bizkaian garatzen jarrai dezaten. – Kualifikazio eta esperientzia handiko profesionalen kontratazioa sustatzea eta laguntzea, haien talentuaren garapena sustatuz, Bizkaiko enprekin lankidetzan, merkatuan duten lehiakortasuna hobetzeko.
Erakunde onuradunak (3. oinarria)	<ul style="list-style-type: none"> – Jarduera nagusia sektore hauetariko bat batean garatzen duen enpresak: industria, eraikuntza, garraioak, industriari lotutako zerbitzuak, turismoa eta handizkako merkataritza – Eskabidea aurkezten duten egunean baldintza hauek bete behar dituzte: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Sozietatearen helbidea, zerga-helbidea eta gutxienez lantoki bat Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea. ✓ Nortasun juridiko propioa izatea. ✓ Gutxienez 5 pertsonako plantilla izatea, lanaldi osoaren urteko baliokideetan ✓ Egunean edukitzea zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzeari dagozkionak. ✓ Ez egotea sartuta maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan jasotako inguruabarretako batean. ✓ Ez egotea sartuta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan edo Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan adierazitako inguruabarretako batean ere, eta ez izatea zehapen irmorik Tratu-berdintasunerako eta Diskriminaziorik ezari buruzko uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integralaren IV. tituluan jasotako arau-hauste oso astunengatik.
Diruz lagundu daitekeen egitatea (4. oinarria)	<p>Lan-kontratu mugagabeak egitea lanbide-esperientzia handia duten kualifikazio handiko profesionalekin, kontratatu aurretik beren jarduera profesionala EAetik kanpo egin dutenekin, jarduera profesionala Bizkaiko Lurralde Historikoan egin dezaten.</p>
Kontratatutako pertsonen bete beharreko baldintzak (5. oinarria)	<ul style="list-style-type: none"> – Eskabidea aurkezten den datan: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Unibertsitateko gradu-titulua edo lizentziatura edukitzea. ✓ Lanaldi osoko edo partzialeko lan-kontratu bat edukitzea, lan-harremana enpresa eskatzailearekin 2023ko urtarrilaren 1aren ondoren hasi bada; beti ere, 2024ko irailaren 30ean kontratuak mugagabea izan beharko du. ✓ Edo kontratazio-proposamen irmoa edukitzea, erakunde eskatzaileak eta kontratatuko den pertsonak sinatuta. Betiere, lan-kontratu mugagabeak 2024ko irailaren 30erako formalizatuta egon behar du. ✓ Lan kontratuaren edo kontratu mugagabearen proposamen irmoa, urteko ordainsari gordina 40.000 euro izan beharko da, gutxienez. – Lehen kontratua formalizatzen den egunean edo kontratazio-proposamena sinatzen den egunean: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Kontratatuko den jardueraren eremuan –jarduera hori dela-eta kontratua izango da– gutxienez 5 urteko lan-esperientzia izatea. ✓ Lanbide-jarduera EAetik kanpo egin izana, gutxienez 36 hilabetez, kontratazioaren dataren aurreko 48 hilabeteetan. ✓ Kontratatutako pertsona edo kontratatu beharrekoa edo haren ezkontidea, aurrekoak edo ondorengoak eta gainerako senideak (odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunagatik, bigarren mailara artekoak barne) iraganean ez izatea enpresa kontratatzailearen administrazio-organoetako kideak edo bazkideak, – Azken egunean, 2024/10/01ean, eta 2025/12/31ra arte: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Dirulaguntzaren xede den lan-kontratu mugagabea behar bezala formalizatuta eta indarrean izatea. ✓ Gizarte Segurantzaren alta emanda egotea. ✓ Bizkaian erroldatuta egotea. ✓ Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun Saileko pertsona fisikoen erroldan alta emanda egotea. ✓ Bizkaian kokaturik dagoen lantokiari atxikita egotea.
Dirulaguntzen zenbatekoa (6. oinarria)	<p>Laguntzaren zenbatekoa honako hau izango da: eskabidean aurkeztutako kontratuan edo kontratazio-proposamen irmoan jasotako urteko soldata finko gordinaren % 20, 2024an, eta % 20, 2025ean. Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 30.000 eurokoa izango da guztira.</p>
Eskabidea egiteko behar den dokumentazioa. (14. oinarria)	<ul style="list-style-type: none"> – Enpresari buruzko dokumentazioa: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Eskabide telematikoa, atal guztiak behar bezala beteta. ✓ Eskabide-memoria, Ekonomia Sustatzeko Sailaren web-orrian eta bulegoetan dauden ereduaren arabera. ✓ Hartzekodunaren fitxa, web-orrian eskuragarri dagoen eredu ofizialaren arabera; Bizkaiko Foru Aldundian banku-helbideratzeari buruzko datuak ez badaude edo bertan dauden datuak aldatu nahi badira. ✓ Langile autonomoen kasuan, enpresak ordaindutako azken autonomoen ordainagiria edo azken nomina

Talentua erakartzea

	<ul style="list-style-type: none">✓ Lan-kontratua edo kontratazio mugagabearen proposamen irmoa, erakunde eskatzaileak eta kontratatuko den pertsonak sinatua, honako hauek jasoko dituen: kontratu mota, lanbide-taldea/lanbide-maila, urteko ordainsari gordinaren zenbatekoa, iraupena, lanaldia eta lantokia.✓ Kontratatutako pertsonari Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean alta ematea, hala badagokio.✓ Enpresa kontratatzailearen erantzukizunpeko adierazpena (web-orrian dagoen ereduaren arabera), non adieraziko den kontratatutako edo kontratatuko den pertsona ez dagoela 5.5 oinarrian aurreikusitako kasuetan. <p>– Kontratatutako edo kontratatuko den pertsonaren dokumentazioa</p> <ul style="list-style-type: none">✓ Kontratu edo kontratatuko den pertsonaren unibertsitate-graduak titulua edo lizentziatura egiaztatzen duen agiria, Espainiako unibertsitate-titulua ofizialerako izan ezik.✓ Kontratatutako edo kontratatuko den pertsonaren lan-bizitza edo antzeko agiria, Espainiako estatutik kanpo jardun badu.✓ Kontratatutako pertsonari Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun Saileko pertsona fisikoen erroldan alta eman izanaren egiaztatzea, hala badagokio. Pertsona hori erroldan agertzen bada, ez da beharrezkoa izango aurkeztea.✓ Kontratatutako edo kontratatuko den pertsonaren baimena, web orrian eskuragarri dagoen ereduaren arabera, Ekonomia Sustatzeko Sailak eskaera izapidetzeko behar diren datu hauek eskuratu ditzan: pertsonen fitxategi nagusia (SICO/N5), errolda, lan-bizitza eta unibertsitateko titulazioa.✓ Kontratatutako edo kontratatuko den pertsonaren curriculum vitae, dekretuaren 14. oinarrian zehazten den informazioa jaso beharko duena.✓ Curriculum vitaean jasotako datuak egiazkoak direla dioen zinpeko aitortzea, kontratatutako edo kontratatuko den pertsonak sinatua.
Gauzatzeko epeak (24. oinarria)	Kontratazio mugagabea 2023/01/01etik 2024/09/30era bitartean hasi behar da, eta kontratu hori indarrean egon behar da gutxienez 2025/12/31ra arte.
Emakidaren araudia eta prozedura (16. oinarria)	29/2024 Foru Dekretua, martxoaren 21ekoa (BAO, 60 zk., 2024ko martxoaren 25ekoa). Dirulaguntzak emateko prozedura lehia askea izango da.
Eskabideak aurkezteko epea: (13. oinarria)	2024ko apirilaren 8ko 8:30etik aurrekontu erabilgarria agortu arte, edo aurkeztutako eskaera-kopurua kontuan hartuta aurrekontua agortzeko aurreikusten den egunera arte, edo 2024ko irailaren 13ko 13:30era arte. Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualean (www.bizkaia.eus/sustapena-oficinavirtual). Horretarako, sinadura elektronikoa eduki beharko duzu (Izenpe, NAN elektronikoa, FEA...), edo B@kQ ziurtagiri elektronikoren bitartez sartu. B@kQ ziurtagiria gure bulegoetan eska daiteke, Orueta Apezpikua kaleko 6an.